

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gautegiz-Arteagako Udala**

Gautegiz Arteagako udala 2017. urteko diru-laguntzak udalerriko irabaz asmorik gabeko elkarte sozio-kultural eta kirol elkarteentzako.

44/2017 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, 2017ko apirilaren 4koa, kultur eta kirol esparruko Gautegiz Arteagako irabazi-asmorik gabeko udal-erakundeei zuzendutako diru-laguntzen deialdia ebatzi da, 2016ko maiatzaren 20ko 96 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako «kultur eta kirol esparruko jarduerak antolatzeke eta aurrera eramateko diru-laguntzei buruzko Ordenantzan» zehaztutako oinarri arautzaileen arabera.

1. artikulua. — Xedea

Deialdi honen xedea Gautegiz Arteagako Udalerriko irabazi-asmorik gabeko Erakundeek burutzen dituzten gizarte, kultur eta kirol esparruko jarduerak sustatzea eta bultzatzea da. Helburu hori betetzea baldintzatuta egongo da, aurrekontu-kreditu nahikoa egon beharko da eta.

2. artikulua. — Diru-laguntzaren helburua

Udal eskuduntzapeko jardueretan, berorien garapena osatuz nahiz hutsuneak betez parte hartzeagatik, irabazi-asmorik gabeko ekimen publiko nahiz pribatuei laguntza emateko dira deialdi honetako diru-laguntzak. Betiere, diruz lagundutako jarduerak ekitaldi berean burutu badira.

3. artikulua. — Diru-laguntza motak

Araudi erregulaztaile hau diru-laguntza mota hauei dagokie:

- Diru-laguntza orokor arrunta: elkartearen urteko ohiko jardueretarako laguntzak.
- Diru-laguntza berezia: elkartearen ohiko jardunaren barruan ez dauden aldizkako ekitaldietarako laguntzak.

Jarduera berbera ezin da bi diru-laguntzetarako aurkeztu.

4. artikulua. — Onuradunak

Deialdi honek araututako diru-laguntzen onuradunak izan ahalko dira gizarte, kultura eta kirol esparruko irabazi-asmorik gabeko elkarteak, baldin eta egoitza Udalerrin honetan badute, legez eratu badira eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- Helbide soziala Gautegiz Arteagan izatea.
- Irabazi-asmorik gabe eratuta egotea.
- Eusko Jaurjaritzaren eta elkarte erregistroan eta udal honen elkarten erregistroan izena emanda egotea.

5. artikulua. — Diruz lagunduko den gehienezko zenbatekoa guztira

Deialdi honetarako kreditua 8.000 eurokoa da, 2017rako udal aurrekontuko 334.481.01 aurrekontu partidan dagoena.

Elkarte bakoitzarentzat diruz laguntzeko gehienezko zenbatekoak ezingo du izan aurrekontu araztuaren %50 baino gehiagokoa, 1.500 euroko mugarekin.

Urtean erakunde bakoitzak gehienez 500 euroko diru-laguntza berezia jaso dezake.

Deialdi honen helburuetarako, jarduera bakoitzarekin lortutako diru-sarrerek ezingo dute gainditu antolatutako jardueraren gastuen zenbatekoa.



Deialdi honetan ezarritako ondorioetarako, oro har, Kultura eta Euskara Batzordeak kasu bakoitzean hartzen duen erabakiaren kalterik gabe, diru-laguntza honek ez du balio tokiko jatetxeetako edari zein janariak sortutako gastuetarako, ezta erakundeek langileak kontratatzeagatik izandako gastuetarako ere.

6. artikulua. — Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Gauegiz Arteagako Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin. Edonola ere, diruz lagundutako programa edo jarduera burutzeko eskuratutako finantzaketa guztira ezingo da izan haren kostua baino handiagoa.

Diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek, hala balegokie, udalari jakinarazi beharko diote eskabidea egin ondoren xede berbererako diru-laguntzak edo laguntzak jasotzen badituzte.

7. artikulua. — Eskaera aurkezteko epea eta lekua

Eskabideak (I Eranskinean) jaso den eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dira (eredu hori <http://www.gauegizarteaga.com> webean eskuratu daiteke), legezko ordezkariak sinatuta, eta hurrengo zenbakian eskatutako agiriekin batera. Eskabideak Gauegiz Arteagako Udalean aurkeztu ahal izango dira (Herriko Enparantza, 1, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara), edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira.

Eskabideak eta dokumentazio osagarria aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Diru-laguntza bereziak urtean zehar aurkeztu ahalko dira, jarduera egin baino 60 egun natural lehenago.

8. artikulua. — Eskabideak eta dokumentazioa

Deialdia ireki ondoren, diru-laguntza eskatu nahi duten Erakundeek, I Eranskina betetzeaz gain, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Diru-laguntza eskatzen duen erakundearen identifikazioa eta helbide soziala.
- Diru-laguntza eskatzen duen erakundearen nortasun juridikoa egiaztatzeko dokumentazioa (Eusko Jaurlaritzaren Kirol Erakundeen Erregistroan, Elkartearen Erregistroan edo antzerakoetan izena emanda egotearen ziurtagiriaren erkatutako fotokopia, eta Erakundearen Estatutuen erkatutako fotokopia).
- Diru-laguntza eskatzen duen erakundearen izenean jarduteko baimena egiaztatzen duen dokumentazioa eta ordezkariaren NANaren fotokopia.
- Diru-laguntza ordaintzeko bankuko datuak.
- Diru-laguntzaren xede den jardueraren proiektua edo memoria. Bertan, jardueraren edukia, helburua, egutegia, diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua eta diru-laguntzaren bidez ordaindu nahi den zatia adierazi behar dira zehatz-mehatz.
- Erakundeak indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-zorraz kitatuta dituela (Foru-ogasunarekin edo dagokionarekin) eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioekin egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak, administrazio eskudunek igorritakoak.
- Zinpeko deklarazioa, erakundeak Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituela adieraziz, eta ondorioz onuradun izan daitekeela, eta lege bereko 14. artikuluan ezarritakoari jarraiki dagozkion baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen duela.
- Eskabide hau aurkeztu aurretik helburu berbererako eskatu diren beste diru-laguntzen edo laguntzen deklarazioa. Horrekin batera, beste Erakundeek emandako diru-laguntzen emakida akordioaren fotokopiak aurkeztu beharko dira.



Ez da beharrezkoa izango elkarteen erregistroan dauden dokumentuak aurkeztea, hala nola, a, b, c eta d ataletan adierazitakoak, baldin eta aldaketarik izan ez badute.

9. artikulua.— Eskabide osatu gabeak eta/edo akastunak

Aurkeztutako eskabideren batek baldintzak beteko ez balitu, interesdunei jakinarazi eta hamar eguneko epea emango zaie aurkitutako akatsak zuzentzeko. Epe hori igarota akatsak zuzendu ez badira, diru-laguntzari uko egiten zaiola ulertuko da, eta eskabidea besterik gabe artxibatuko dela.

10. artikulua.— Organo izapidegilea

Txostenaren izapidegilea Gauegiz Arteagako Udaleko Kultura eta Euskarako Informazio Batzordearen burua izango da.

Egindako ebaluazioaren emaitza eta onesteko proposamena biltzen dituen txostena igorriko duen kide anitzeko organoa Gauegiz Arteagako Udaleko Kultura eta Euskarako Informazio Batzordea izango da.

Udalbatzako Alkateak hartuko ditu diru-laguntzen gaineko erabakiak.

11. artikulua.— Eskabideen ebazpena

1. Eskabide arruntak gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatzi eta jakinaraziko zaizkie interesdunei (ahal bada, bide elektronikoa erabiliz), deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik arrera zenbatzen hasita.

Eskabide bereziak gehienez ere hogeita hamar egun naturaleko epean ebatzi eta jakinaraziko zaizkie interesdunei (ahal bada, bide elektronikoa erabiliz), eskabidea aurkeztu eta hurrengo egunetik arrera zenbatzen hasita.

Interesdunek eskabideak ezetsi direla uler dezakete, administrazio-isiltasunagatik, epea igarota berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada.

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera jakinaraziko da.

Ebazpena ezezkoa bada, argudioak eman beharko dira. Ebazpena baiezkoa bada, udalak idatziz azaldu behar du zein irizpidetan oinarritu diren kopurua onartzeko.

3. Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 18. artikuluan ezarritako moduan egiteaz gain, udaleko iragarki-taulan argitaratuko da ebazpena, eta emandako diru-laguntzak webgunean ere bai.

12. artikulua.— Emateko prozedura

Diru-laguntzak norgehiagoka emango dira, aurrekontuan aurreikusitako partida eta erakunde bakoitzari ordaindu ahal zaion gehieneko zenbatekoa aintzat hartuta.

13. artikulua.— Diru-laguntzen ordainketa

Alkateak emandako diru-laguntzak honela ordainduko dira:

- %50 diru-laguntza onartzean.
- %50 jarduera justifikatu ondoren, hurrengo artikuluan ezartzen den bezala.

14. artikulua.— Justifikazioa

Diruz lagundutako jarduera bukatu denean, eta, edonola ere, diru-laguntza eman eta hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen, Erakunde antolatzaileak, II Eranskina beteta eta bere ordezkariaren sinadurarekin aurkezteaz gain, dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Diruz lagundutako urteko jardueri buruzko txostena eta, hala badagokio, froga gisa balio duten aleak, adibidez, esku egitarauak, kartelak, argazkiak, argitalpenak edo jarduera horretarako edo jardueran bertan prestatutako beste edozein dokumentazio grafiko. Dokumentu horietan, jarduerak Gauegiz Arteagako Udalaren diru-laguntza izan duela ageri beharko da, Udalak adierazitako logotipoekin batera.



- Diruz lagundutako jardueri lotuta egon diren diru-sarreraren eta gastuen txostena, biak ere xehatuak, Idazkariak igorritakoa (III Eranskina).
- Diruz lagundutako jarduera dela eta izandako gastuen egiaztapena, faktura originalak edo horien erkatutako fotokopiak aurkeztuz. Gastuak faktura elektronikoen bidez ere egiazta daitezke, betiere, zergen arloan onartuak izateko baldintzak betetzen badituzte.
- Eskabidea egitean aurkeztu ezin izan baziren, beste Erakundeek emandako diru-laguntzen emakida akordioaren fotokopiak edo eskatutako diru-laguntza eta laguntzen deklarazioa, Gautegiz Arteagako udalean diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu ondoren.

Gautegiz Arteagako Udalak diruz lagundutako jardueren jarraipena egingo du, eta edozein unetan eska ditzake behar beste azalpen edo agiri. Udal araubide honetan arau-petutako diru-laguntzaren bat jaso duten subjektuen kontabilitatearen ikuskaritza egin dadila ere eska dezake.

15. artikulua. — Desberdintasunak

Diruz lagundutako jarduera justifikatzean adierazitako jardueraren kostu erreala eta aurkeztutako eskabidean adierazitakoa bat ez badatoz, zera egingo da:

- Jardueraren kostua eskabidean adierazitakoa baino txikiagoa bada, murrizketa hori eragiten duten arrazoiak aztertu eta gero, Alkateak diru-laguntzaren zenbatekoa murriztea erabaki ahalko du, jardueraren kostua murriztu den proportzio berean.
- Jardueraren kostua eskabidean adierazitakoa baino handiagoa bada, diruz lagunduko da bi zenbatekoen arteko alde hori diru-laguntza jasotzen den urteko abenduaren 31 baino lehen jarduera justifikatzen den kasuetan, eta betiere, aurrekontu partidan kreditu nahikoa badago.

16. artikulua. — Diru-laguntza itzultzea

Erakunde onuradunek emandako diru-laguntza gal dezakete honako kasu hauetan:

- Jarduera justifikatzeko dokumentazioa ez aurkezteagatik, edota epez kanpo aurkezteagatik.
- Emandako diru-laguntza eskatu zen xede jakinetarako ez erabiltzea.
- Datuak desitxuratu edo ezkutatzegatik, eskabidean zein jarduerak justifikatzeko dokumentazioan.
- Oro har, deialdi honetan eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritako obligazioak ez betetzeagatik.

Emandako diru-laguntzaren itzulketa Udaltzako Alkateak erabakiko du, aurreko artikuluko b, c, eta d puntuetan deskribatutako kasuetan. Horrez gain, Erakunde arau-hausleari bi urteko epean beste edozein diru-laguntza ez emateko erabakia ere hartu daiteke.

AZKEN XEDAPENA

Lehena: Udalak ematen duen edozein diru-laguntza eskatu nahi duten Erakunde guztiek, Eusko Jaurlaritzaren Elkartean Erregistroan eta Gautegiz Arteagako udalaren erregistroan izena emanda egon behar dute, dokumentazio hau aurkeztuta:

- Estatutuak.
- Eraketa-akta.
- Zuzendaritzako Batzordearen osaera.
- Erakundeak Eusko Jaurlaritzan duen erregistro zenbakia.
- Kide kopurua.
- Bankuko kontu-zenbakiaren ziurtagiria.
- IFK.
- Inprimaki ofiziala behar bezala beteta.

Gautegiz Arteagan, 2017ko apirilaren 4an. — Alkatea, Juan Felix Naberan Ozamiz



I. Eskaera eredia/ Modelo I. Modelo Solicitud

Eskatzailea (elkartea) / Solicitante (asociación)

Izena / Nombre

IFZ... Helbidea
NIF... Domicilio

Herria / Población PK / CP Probintzia / Provincia

Herraldea / País Telefonoak

Fax-a E-maila

Diru-laguntza jasotzeko kontua (IBAN: 24 digitu) / Cuenta para cobro de subvención (IBAN 24 dígitos)

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Ordezkarria / Representante

Izen-abizenak
Nombre y apellidos

NAN... Helbidea
DNI... Domicilio

Herria / Población PK / CP Probintzia / Provincia

Herraldea / País Telefonoak

Fax-a E-maila

Goian aipatzen den elkarteko ordezkariak, **BERE ARDURAPEAN, HAUXE AITORTZEN DU:**

1. Elkarte hori diru-irabazi asmo barikoa dela eta Gautegiz Arteagako udalerraren eremu barruan jarduerak egiten dituela.
2. Oinarrietan eta deialdian ezartzen diren baldintza guztiak betetzen dituela eta goitik behera onartzen dituela.
3. Egunean dituela indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin dituenak eta EZ duela inongo zorrik diru-laguntzak itzuli behar izateagatik.
4. Diru-laguntzetarako Legearen 13 artikuluan xedatutako onuradun izateko baldintzak betetzen dituela eta 14. artikulua arabera baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen duela.
5. Diru-laguntza honen xede den jarduera burutzeko:
 Ez da eskatu eta eskuratu beste laguntzarik; eskatu den bakarra Gautegiz Arteagako udalari eskatu zaiona izan da.
 Beste laguntza batzuk eskatu eta/edo eskuratu dira. (kopia eranstean da)
Erakundea:
Zenbatekoa:

El/la representante de la asociación de referencia **DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD:**

1. Que dicha asociación es una asociación sin fines de lucro que desarrolla actividades socio-culturales o deportivas en el ámbito del municipio de Gautegiz Arteaga.
2. Que acepta y reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y en las bases.
3. Que se encuentra al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seg. Social impuestas por las disposiciones vigentes y que NO tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.
4. Que cumple los requisitos señalados en el art. 13 de la Ley General de Subvenciones para obtener la condición de beneficiario y que se compromete a cumplir las condiciones con arreglo al art. 14 de dicha ley.
5. Que para ejecutar la actividad objeto de la subvención:
 NO se han solicitado ni obtenido otras ayudas que la correspondiente a la solicitada al Ayto. de Gautegiz Arteaga.
 SI se han solicitado y/o obtenido otras ayudas. (Se adjunta copia)
Órgano concedente:
Importe:

Eta, horrela jasota gera dadin eta bidezkoak diren ondorioak sor ditzan, aitortpen hau izenpetzen du.

Y, para que conste y surta los efectos oportunos, firma la presente declaración responsable.

Ordezkariaren sinadura, dagokionean elkartearen zigilua, lekua eta data
/ Firma representante, en su caso, sello de la asociación, lugar y fecha

**AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

- Eskatera egiten duen elkartearen identifikazioa eta helbide soziala, aldatu baldin bada..
- Elkartearen pertsonalitate juridikoaren egiaztapena (estatutuen fotokopia konpultsatua, eta elkartea Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkartearen erregistroan, Elkartearen Erregistroan edo antzekoetan inskribatuta dagoela dioen egiaztagiriri), aldatu egin baldin bada.
- Elkartearen ordezkariaren egiaztagiria eta ordezkariaren NANaren fotokopia, aldatu baldin bada.
- Banku-kontuaren identifikazioa diru-laguntza ordaintzeko, aldatu baldin bada.
- Jarduera-proiektua edo memoria diru-laguntzaren xede dena eta zehaztasunez azaltzen duena edukia, helburua, egutegia, sarrera eta gastuen aurrekontua eta diru-laguntzaren zenbatekoa osoa.
- Zerga betebeharrak (Foru Ogasunak edo dagozkionak igorrita) eta Gizarte Segurantzagatik betebeharrak betetzen duenaren ziurtagiria, administrazio eskumendunak igorrita.
- Beste erakunde edo instituzio batzuetan jarduera berbererako diru-laguntza eskaera egin bada eta/edo diru-laguntzarik jaso bada, ebazpenaren kopia edo, hala badagokio, eskabidearen kopia.

DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

- Identificación y domicilio social de la entidad solicitante, si ha sufrido variación.
- Documentación acreditativa de la personalidad jurídica de la entidad solicitante (Copia compulsada del certificado de inscripción en el Registro de Entidades Deportivas, Registro de Asociaciones o similares del Gobierno Vasco y de los Estatutos de la Entidad), si ha sufrido variación.
- Documentación acreditativa de la capacidad del representante de la entidad solicitante y copia de su D.N.I., si ha sufrido variación.
- Identificación de los datos bancarios para hacer efectiva la subvención, si ha sufrido variación.
- Proyecto o memoria de la actividad para la que solicita la subvención que contenga una exposición detallada de su contenido, finalidad, calendario, presupuesto de ingresos y gastos previstos para su desarrollo y cantidad total que se pide sea subvencionada.
- Certificados acreditativos de que la entidad se encuentra al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias (Hacienda Foral o la que, en su caso, corresponda) y frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, expedidos por las administraciones competentes.
- En caso de haber solicitado y/u obtenido otras subvenciones para la actividad objeto de subvención, copia de la resolución o, en su caso, de la solicitud.

Zure datu-pertsonalak Gauegiz Arteagako Udalaren informazio sistemaren fitxeroetan sartuko dira, helburua udal kudeaketaren zereginak burutzea izango da, 15/1999 Lege Organikoak xedatzen dituen eskubideak erabili ahal dituzu Herritarrek Artatzeko Zerbitzuan (BAZ)

Sus datos personales serán incluidos en un fichero del sistema de información del Ayuntamiento de Gauegiz Arteaga, cuya finalidad es la realización de tareas propias de la gestión municipal. Ud puede ejercer los derechos que reconoce la Ley Orgánica 15/1999 a través del Servicio de Atención Ciudadana (BAZ)



II. Diru-laguntzaren zuzitzea/ Modelo II. Justificación subvención

Eskatzailea (elkartea) / Solicitante (asociación)

Izena / Nombre

IFZ... Helbidea
 NIF... Domicilio

Herria / Población PK / CP Probintzia / Provincia

Herrialdea / País Telefonoak

Fax-a E-maila

Diru-laguntza jasotzeko kontua (IBAN: 24 digitu) / Cuenta para cobro de subvención (IBAN 24 dígitos)

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Ordezkarria / Representante

Izen-abizenak
 Nombre y apellidos

NAN... Helbidea
 DNI... Domicilio

Herria / Población PK / CP Probintzia / Provincia

Herrialdea / País Telefonoak

Fax-a E-maila

Diru-laguntza / Subvención

Diruz lagundutako aktibitatea Actividad subvencionada Diru-laguntzaren zenbatekoa Importe de la subvención	<input type="text"/> <input type="text"/>
---	--

Goian aipatzen den elkarteko ordezkariek, **BERE ARDURAPEAN, HAUXE AITORTZEN DU:**

- Egunean dituela indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin dituenak eta EZ duela inongo zorrik diru-laguntzak itzuli behar izateagatik.
- Ordaindu egin direla diruz lagundutako jarduera guztiei dagozkien faktura guzti-guztiak.
- Ez dagoela gain finantzaketarik diru-laguntzaren xede diren inolako ekintzetan.

El/la representante de la asociación de referencia **DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD:**

- Que se encuentra al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seg. Social impuestas por las disposiciones vigentes y que NO tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.
- Que se han abonado todas las cantidades resultantes de las facturas relacionadas con la actividad subvencionada
- Que no hay sobrefinanciación con relación a ninguna de las actividades subvencionadas.

Ordezkararen sinadura, dagokionean elkartearen zigilua, lekua eta data
 / Firma representante, en su caso, sello de la asociación, lugar y fecha

**AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

- Diru-laguntzaren arabera urtean egindako ekintzen memoria eta, hala badagokio, eskuko programen aleak, kartelak, argazkiak, argitarapenak edo beste agiri grafikoak diru-laguntzaren arabera egindako ekintzen ingurukoak, aleetan agertu behar dira Gautegiz Arteagako Udalak diru-laguntzaz burutu direla eta Udalak zehaztutako logotipoak.
- Idazkariak igorritako ziurtagiria, non diru laguntzaren arabera egindako ekintzen sarrerak eta gastuak, zehatz-mehatz, zehazten diren.
- Diru-laguntzaren xede den jarduerak garatzean izandako gastuak justifikatzeko faktura orijinal edo kopia konpultsatuak. Gastuak faktura elektronikoen bidez ere justifikatu ahal izango dira, zergei dagokionez onartuak izateko baldintzak betetzen dituzten bitartean.
- Eskaera egiterakoan aurkeztu ezin izan bada, bestelako erakundeek jarduera berentzeko emandako diru-laguntzen ebazpena edota diru-laguntzen eskaera egin denaren adierazpena.

DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

- Memoria relativa a las actividades desarrolladas durante el año objeto de subvención y, en su caso, ejemplares de programas de mano, carteles, fotografías, publicaciones u otra documentación de carácter gráfico elaborado en o para el desarrollo de la actividad subvencionada, debiendo constar en los ejemplares que la actividad ha sido subvencionada por el Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga, además de los logotipos que el Ayuntamiento haya indicado.
- Certificado expedido por el Secretario referente a los ingresos y gastos, ambos desglosados, habidos en relación a las actividades subvencionadas.
- Acreditación de los gastos incurridos en el desarrollo de la actividad subvencionada mediante las facturas originales o fotocopias compulsadas. La acreditación de los gastos también podrá efectuarse mediante facturas electrónicas, siempre que cumplan los requisitos exigidos para su aceptación en el ámbito tributario.
- Si no pudieron aportarse en el momento de la solicitud de la subvención fotocopias de los acuerdos de concesión de ayudas económicas por otras Instituciones o declaración de las subvenciones y ayudas que se han solicitado una vez presentada la solicitud de subvención en el ayuntamiento de Gautegiz Arteaga.

Zure datu-pertsonalak Gautegiz Arteagako Udalaren informazio sistemaren fitxeroetan sartuko dira, helburua udal kudeaketaren zereginak burutzea izango da, 15/1999 Lege Organikoak xedatzen dituen eskubideak erabili ahal dituzu Herritarrak Artatzeko Zerbitzuan (BAZ)

Sus datos personales serán incluidos en un fichero del sistema de información del Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga, cuya finalidad es la realización de tareas propias de la gestión municipal. Ud puede ejercer los derechos que reconoce la Ley Orgánica 15/1999 a través del Servicio de Atención Ciudadana (BAZ)



III. Diru-sarrerren eta gastuen zerrenda eredu/ Modelo III. Relación de ingresos y gastos

IDAZKARIAREN IZEN ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS DEL SECRETARIO/A		NAN / DNI	
HEL BIDEA / DOMICILIO	HERRIA / POBLACIÓN	P.K. / C.P.	PROBINTZIA / PROVINCIA
ORDEZKARIA (Udal elkarte onuraduna) / REPRESENTANTE (Asociación municipal beneficiaria)		NAN-IFZ-IFK / DNI-NIF-CIF	
DIRUZ LAGUNDUTAKO AKTIBITATEA / ACTIVIDAD SUBVENCIONADA		DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA / IMPORTE DE LA SUBVENCIÓN	

Hau izenpetzen duenak ondorengo **ZIURTATZEN** du:

Aurrena: Ondoren azalduko diren gastu hauek diruz lagundutako jardueratik sortutako gastuei dagozkienak direla eta jada ordainduta daudela.

El abajo firmante **CERTIFICA:**

Primero: Que los datos que a continuación se indican corresponden a gastos derivados de la actividad subvencionada y que están ya abonados:

HORNITZAILEA / ACREEDOR		GASTUAREN KONZEPTEUA CONCEPTO GASTO	ZENBATEKOA IMPORTE	DOKUMENTUA / DOCUMENTO	ORDAINKE TA DATA FECHA PAGO
IZENA / NOMBRE	IFK / CIF				
TOTAL GASTOS					

